

ERABAKIA, 2022ko EKAINAREN 24koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN DEN IKASTEGI ETA GRADUEN LIBURUXKAK INGELESERA ITZULTZEKO EDO ITZULITAKOAK EGUNERATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, UPV/EHUko IKASTEGIEN NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEKO

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren helburuetako bat da UPV/EHU ikusgai egitea eta sustatzea nazioartean, gure unibertsitateko ikastegietan ikasteko, eskolak emateko edo ikertzeko trukeak egiteko programetan parte hartuko duten erakundeen sare bat osatzeko.

Helburu hori lortzeko, UPV/EHUko ikastegietako langileak nazioarteko unibertsitate azoketara joan ohi dira, UPV/EHU ezagutzera emateko truke programetan bazkide dituen edo izan nahi dituen erakundeen aurrean.

Nazioartekotze zeregin horietan erabil daitekeen materiala sortzen laguntze aldera, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak **deialdi hau** argitaratzen du **EAIE 2022 azokan parte hartuko duten ikastegientzat**.

Azaldutakoagatik, ikusita krediturik badagoela, eta nire eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Onartzea eta argitara ematea ikastegi eta graduen liburuxkak¹ ingelesera itzultzeko eta itzulitakoak eguneratzeko eta birdiseinatzeko dirulaguntzen deialdia, UPV/EHUko ikastegi nazioartekotzea sustatzeari begira.

Bigarrena.- Onartzea 20.000 (hogei mila) eurorainoko gastua, gehi BEZa, aipatutako materiala ingelesera itzuli edo itzulitakoa eguneratu eta birdiseinatzeko, errektoreordetzaren aurrekontuaren kargura.

Agortuko ez balitz Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak deialdi honetarako erreserbatutako kreditua proposamenak aurkezteko epearen barruan, soberakina gordeko litzateke beste deialdi bat egiteko oraingo honetan laguntzarik lortzen ez duten ikastegientzat.

¹ UPV/EHUko Komunikazio Bulegoak Ikasleentzako Argibide Zerbitzuarentzat prestatutako ikastegi eta graduen liburuxkak. Hementxe daude ikusgai:
<https://www.ehu.eus/eu/web/sou/ikastegi-eta-gradu- liburuxkak>

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta kontra egiteko honako bide hauek erabil daitezke, baina inola ere ez aldi berean:

- a) Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Administrazioarekiko errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik eman ezean, errekurtsoa ezetsizat jo beharko da. Horrela gertatuz gero, auzibidera jotzeko aukera egongo da, b) letran azaltzen den legez. Presuntziozko ezespina gertatuz gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, presuntziozko ezespina gertatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duena, 46. artikulua).
- b) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

OINARRIAK:

1.- Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua da dirulaguntza ematea:

- i. Dagoeneko ingelesez dauden liburuxken edukia eguneratzeko, edo
- ii. Haien diseinua eguneratzeko edo
- iii. Ingelesera itzultzeko moldatutako liburuxkak, bai ikastegiak eta bai graduak,

EAIE 2022ra joango diren UPV/EHUko ikastegi nazioartekotzea sustatzeari begira.²

2.- Ekintzaren azalpena

Eskaerak behin onartuta, fase hauetan beteko da helburua:

I. fasea: Ikastegiak ingelesez badauka liburuxka dagoeneko, edukiaren edo diseinuaren eguneraketak proposatu beharko ditu.

² Deialdia EAIEra joango diren ikastegi guztiei zuzenduta dago, alde batera utzita errektoreordetzari horretarako dirulaguntza eskatu dioten ala ez.

Ikastegiak liburuxka ingelesez ez badauka, hartuko du eredu moduan (edukiari, orri kopuruari eta diseinuari dagokionez) hizkuntza ofizialetan argitaratutako ikastegi eta graduen liburuxka, eta testua egokituko dio nazioarteko publikoaren beharretara moldatzeko, erabaki honetako 7. puntuari aipatzen diren irizpideen arabera.

II. fasea: Aurkeztutako materiala ingelesera itzultzeko, eguneratzeko eta birdiseinatze lanen kostuak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak finantzatzeko ditu, deialdi honetarako dagoen diru kopurua agortu arte.

III. fasea: Liburuxkak itzuli, eguneratu eta birdiseinatze fasea amaitu eta gero, pdf dokumentua emango zaie ikastegiei, inprima dezaten. Liburuxkak inprimatzeko lanen kostua ez dago sartuta deialdi honetan eta, hortaz, UPV/EHUko ikastegi bakoitzak erabaki beharko du zein bide erabiliko duen kostu horiek ordaintzeko.

3.- Eskaerak

Deialdian parte hartu nahi duten UPV/EHUko ikastegiek eskaera aurkeztuko diote Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzari, dokumentu hauekin batera:

- a) Eskaera orria, behar bezala beteta eta nazioarteko harremanen arloko, mugikortasunaren arloko edo antzeko arloko zuzendariordeak/dekanordeak sinatua (deialdi honetarako, pertsona hori eskatzailea izango da).
Eskaeran adierazi beharko da ikastegian ematen den gradu bakoitzean zenbat kreditu eskaintzen diren hizkuntza ez-ofizialetan, *English Friendly Courses* (EFC) irakasgaiak barne, bai eta 2021/2022 ikasturtean zenbat ikasle bisitari etorri diren ikastegira graduoko ikasleentzako nazioarteko mugikortasun programen bidez.

4.- Eskaerak aurkezteko epea eta era

Eskariak 2022ko uztailaren 1era arte aurkeztu ahal izango dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiarekin, zeinaren bidez onartu ziren interesdunak eta UPV/EHUko

langileak harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak:

- Eskariak UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Eskaeraren «jasotzailea» atalean hau aukeratu behar da: Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza. Identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUko langile txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).
- Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horretarako adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, zeinaren bidez onartzen diren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko betekizunak, eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoa eskatutako beste batzuk, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta **zuzentzeko** edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena emanda urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotako moduan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Ez da onartuko epez kanpo egindako eskaerarik.

5.- Eskaerak baloratzeko irizpideak

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan deialdiko aurrekontuarekin finantzatzeko diren eskaerak onartzeko:

1. Lehenik eta behin ikastegi bakoitzeko graduako ikasketetan hizkuntza ez-ofizialetan irakasten den kreditu kopurua. Gradu bat baino gehiago eskaintzen duten ikastegiaren kasuan, batezbestekoa egingo da ikastegiko gradu guztietan hizkuntza ez-ofizialetan irakasten diren kredituak kontuan hartuta.
2. Hizkuntza ez-ofizialetan kreditu gehien irakasten dituen ikastegiaren eskaera behin onartuta, kasuan kasuko liburuxka ingelesera itzuli eta birdiseinatze lanen kostua kalkulatu da; ondoren, beste ikastegiaren egindako eskaerak onartuko dira, kontuan hartuta hizkuntza ez-ofizialetan irakasten duten kreditu kopurua. Eskaera bat onartzen den bakoitzean eguneratu egingo da ekintza honetarako dagoen aurrekontuko zenbatekoa.
3. Berdinketarik izanez gero, gradu bakoitzean *English Friendly Course* motako kreditu gehien eskaintzen dituzten eskaerei emango zaie lehentasuna. Gradu bat baino gehiago eskaintzen duten ikastegiaren kasuan, *English Friendly Course* motako kredituak kalkulatzeko, batezbestekoa egingo da ikastegiko gradu guztietan irakasten diren mota horretako kredituak kontuan hartuta.
4. Hala ere berdinketarik izanez gero, 2021/2022 ikasturtean nazioarteko mugikortasun programa baten barruan bisitari gehien izan dituzten ikastegiaren eskaerak izango dute lehentasuna.

6.- Balorazio batzordea

Balorazio Batzordeak osakide hauek izango ditu: UPV/EHUko Nazioarteko Mugikortasunaren arloko zuzendaria, batzordeko burua izango dena; Nazioartekotzeko Hizkuntza Plangintzaren arloko zuzendaria, batzordeko kidea izango dena; eta Nazioarteko Harremanen Zerbitzuko burua, batzordeko kide eta idazkaria izango dena. Balorazio Batzordeak –edo batzordeko kideek horretarako izendatuko dituzten teknikariek– erabakiaren berri emango dio eskaera bakoitzean harremanetarako adierazitako pertsonari. Eskaerak behin onartuta, eskatzaileek behar diren eguneraketak egingo dizkiote testuari, ikastegi eta graduen liburuxkak ingelesera itzultzeko, hurrengo puntuan (7) jasota dagoen moduan.

7.- Onuradunaren betebeharrak

Posta elektronikoz jakinaraziko da eskaera onartua izan den ala ez, eta horretarako mezu bat bidaliko da eskaeran harremanetarako eman den helbidera.

Onartutako eskaerei ikastegi eta graduen liburuxka bidaliko zaie formatu editagarrian (ingelesez edo hizkuntza ofizialetan), ikastegiak beharrezko ikusten dituen moldaketak egin ditzan testuan, erabakiaren jakinarazpenean adieraziko den epearen barruan.

Ikastegi eta graduen liburuxkaren ingeleseko bertsioa nazioartera bidaltzeko edo nazioarteko jendeari banatzeko denez, eta ikastegi guztien liburuxkek diseinu berbera izan behar dutenez, honako hauek izan beharko dira kontuan ingelesera itzuliko den edukia moldatzerakoan:³

1. IKASTEGI ETA GRADUEN LIBURUXKAKO 2. ETA 3. ORRIALDEAK

- i. **Sarrerako testua:** UPV/EHUri, campusei eta Euskal Autonomia Erkidegoari buruzkoa (Komunikazio Bulegoak prestatuko du eta, hortaz, ikastegiak ez dira arduratu behar eduki horiez), 250 hitz.

2. IKASTEGI ETA GRADUEN LIBURUXKAKO 4. eta 5. ORRIALDEAK

- ii. **Ikastegiaren aurkezpena** atala: 50 hitz gehienera.
- iii. **Azpiegiturak** atala: 50 hitz gehienera.
- iv. **Ikasleek beren kabuz erabiltzeko guneak** atala: 50 hitz gehienera.
- v. **Laborategi espezifikoak** atala: 50 hitz gehienera.
- vi. **Beste gune batzuk** atala: 20 hitz gehienera.
- vii. Ingeleseko bertsiorako **harremanetarako** jarri nahi diren telefonoa eta helbide elektronikoa, nazioarteko publikoarentzat eta mugikortasun programen bidez datozen bisitariarentzat egokia.
- viii. **Eleaniztasuna** atala: 100 hitz gehienera.
- ix. **Mugikortasun programak** atala: bisitariari egokitua, 60 hitz gehienera.
- x. **Nabarmentzekoak** (gehienez 3 koadro): koadro bakoitzean 12 hitz gehienera.
- xi. **Graduondokoen eskaintza:** tituluak baino ez dira jarri behar.
- xii. **Praktikak** atala: ez da agertuko, eskatzaileak ager dadila eskatu ezean eta, betiere, deialdi honetako ebaluazio batzordeak egoki ikusten badu.

³ Azalpen hau oraindik ingelesezko bertsiorik ez daukaten ikastegientzat baino ez da.

Eskatzaileak hala nahi badu, atalen eskema hau aldatu ahal izango da ikastegiari buruzko informazio egokiagoa emateko; edonola ere, ikasle bisitarietzako informazio espezifikoak (vii, viii, ix eta x. atalak) 310 hitz izan behar ditu, gutxienez, eta guztira ezingo dira izan 670 hitz baino gehiago (Komunikazio Bulegoak prestatutako i) atala barne).

3. IKASTEGI ETA GRADUEN LIBURUXKAKO 6. ORRIALDEA ETA PAREKOAK

- xiii. **Graduaren edukia:** aurkezpen laburra, 100 hitz gehienera.
- xiv. **Irteera profesionalak** atala: ez da agertuko, eskatzaileak ager dadila eskatu ezean eta, betiere, deialdi honetako ebaluazio batzordeak egoki ikusten badu.
- xv. Atal horren ordez, **nazioarteko ikasleentzako informazio lagungarria** jarriko da, ikastegi edo gradu bakoitzaren interesen arabera: ikasle bisitariak onartzeko baldintzak, hizkuntzari buruzko gomendio edo betekizunak, **irakasgaien plazen mugak**, dokumentazioa aurkezteko epeak, *buddy* programa, matrikulazioari buruzko informazio bilerak edo nazioarteko bisitarietzako bisita gidatuak ikastegian... gehienez 250 hitz.
- xvi. Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak antolatutako **gaztelania edo euskara** ikastaroen gaineko informazioa (kreditu kopurua zehaztuta).

Seigarren orrialdean, eta parekoetan, ematen den informazio guztiak ezin ditu izan 350 hitz baino gehiago.

4. IKASTEGI ETA GRADUEN LIBURUXKAKO 7. ORRIALDEA ETA PAREKOAK

- xvii. **Ikasketa plana** atala: plana osatzen duten irakasgai guztiak agertu beharko dira. Irakasgairen izena eskolak ematen diren hizkuntzan agertuko da (mailaren eta lauhilekoen eskema errespetatuta), eta gradu bakoitzean *English Friendly Courses*⁴ moduan eskaintzen diren irakasgaiak zehaztuko dira. Irakasgaien taulan irakasgai bakoitzaren kreditu kopurua adierazi beharko da.

Aipatutako moldaketak behin eginda, testua ingelesera itzuliko da. Horretarako, testu moldatua Word formatuan bidaliko da, eskaera onartu dela jakinarazten duen mezuan adierazitako epean, helbide elektroniko honetara: nazioartekoak.2helpcentre@ehu.eus

⁴ *English Friendly Courses (EFC)* graduko irakasgaietan eskolak gaztelaniaz ematen dira, baina programa eta beste zenbait gauza –tutoretzak, zenbait lan, azterketak etab.– ingelesez eskaintzen dira.

Itzulpenak egin ondoren, diseinu enpresari helaraziko zaio materiala, dokumentuaren maketazioa egin dezan. Prozesua amaituta, PDF dokumentua emango zaie ikastegiei, inprimatzeko prest. Inprimatze lanak ikastegien kontura izango dira, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuarekin adostuko dituzten baldintzetan. Liburuxkak inprimatzeko lanen kostua ikastegiei hartuko dute beren gain osorik.

8.- Betebeharrak gainbegiratzea eta betebeharrak ez betetzea

Deialdiko oinarriak edo Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak deialdian bertan eta ondorengo jakinarazpenetan ezarritako epeak ez betetzeak eragin dezake eskaria ezestea, edo emandako laguntza etetea edo baliogabetzea. Ondorio berberak izan ditzake datuak ezkutatzek, aldatzek edo manipulatzek.

Leioa, 2022ko ekainaren 24a

M. Juncal Gutierrez Mangado
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen
arloko errektoreordea